



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## **HERRI JABARI PUBLIKOAREN BAKARREKO ERABILERAGATIK EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

**2008**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1 artikulua.**

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasok, eta haren barruan geratzen dira jasota.

#### **2. artikulua.**

Ordenantza hau udalaren eremu osoan aplikatuko da.

### **II. ZERGAGAIA**

#### **3. artikulua.**

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren probetxamendu bereziak eratzten du zergagaia.

### **III. SUBJEKTU PASIBOA**

#### **4. artikulua**

1.- Honako hauek izango dira, zergadun gisa, subjeto pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 34. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienez, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Administrazio Publikoak, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazioanalarrekin zerikusia duten guztietan.

#### **5. artikulua.**

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

### **IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK**

#### **6. artikulua.**

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## **V. OINARRI EZARGARRIA**

### **7. artikulua.**

Oinarri ezargarrria jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

## **VI. KUOTA**

### **8. artikulua.**

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldeztatik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Udalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diruitzulketak.

## **VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA**

### **9. artikulua.**

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedienteak ez da izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarilaren lehen gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

## **VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

### **10. artikulua.**

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

## **IX. TASEN KUDEAKETA**

### **11. artikulua.**

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Araua Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

## **X. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, bere Eranskina barne, Udalak 1998ko urriaren 28an egindako Osoko Bilkuran onartu zen behin-behingo. Ondoren, 1999ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran aldatu zen lehenengoz, 2000eko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran bigarrenez, 2001eko irailaren 27an egindako Osoko Bilkuran hirugarrenez, 2002ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran laugarrenez, 2003eko urriaren 15ean egindako Ezohizko Osoko Bilkuran bosgarrenez, 2004eko urriaren 13an egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran seigarrenez, 2005eko urriaren 14an egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2005eko abenduaren 23an zazpigarrenez, eta 2006ko irailaren 27an egin zen Ohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2006ko azaroaren 21an zortzigarrenez.

Aldaketa hau 2007ko urriaren 25ean egin zen Ohizko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2007ko abenduaren 14an. 2.008eko urtarrilaren 01ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean.



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## ERANSKINA

### I. TARIFAK

Jarraian adieraziko diren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezi bakoitzari dagozkion tarifei, Eranskineko II.zk.an (kaleen sailkapenari buruzkoa) adierazitako gehikuntza indizeak aplikatuko zaizko.

#### **A) EPIGRAFEA: HERRI-ERABILERA KO LURRAK OKUPATZEA HONAKOAK DITUZTELA: MERKANTZIAK, ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK, HONDAKINAK, HESIAK, ALDAMIOAK, ZUTABE, EUSTAGAK, EDUKIONTZIAK ETA ANTZEKO INSTALAZIOAK**

m<sup>2</sup> edo zatikiko eta aste edo zatikiko: 2,40 €

Hondakindegia edo edukiontzia:

m<sup>2</sup> edo zatikiko eta aste edo zatikiko: 7,15 €

Eraikuntza-obretarako beharrezkoak diren etxetxoak eta roulotak, laneko segurtasuneko eta higieneko araudiarekin bat, eta, materialak edo antzekoak (ez hondakinak) uzteko edukiontzia m<sup>2</sup> edo metro-zati bakoitzeko eta egun bakoitzeko: 7,15 €

#### **Tarifak aplikatzeko arauak**

a) Epigrafe honek aipatzen dituen lanak bi hilabete baino denbora luzeagoz eteten badira arrazoizko kausarik gabe, tarifa honen aplikaziotik ateratzen diren zenbatekoek 100eko 100eko gainkargua izango dute hirugarren hilabetetik aurrera, eta lanak bukatu bakoitzean probetxamenduek jarraitzen dutenean, zenbatekoek 100eko 200eko gainkargua izango dute.

b) Fatxadak zartzeko lanen ondorioz ipini beharreko hesi eta aldamiok dagozkien tarifei 100eko 50eko gutxitzea izango dute, beti ere instalazio epealdia hiru hilabete baino gehiagokoa ez denean.

#### **B) EPIGRAFEA: IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR SARTZEA ETA BIDE PUBLIKOAN APARKA-TZEKO ERRESERBAK, IBILGAI-LUEN GELDIALDIA, EDOZEIN MOTATAKO MERKANTZIEN ZA-MALANAK**

A) Ibilgailuak eraikinetara sartzea:

1.- Gehienez 4 ibilgailurentzako igarobide bakoitzeko: 34,80 €urteko.

2.- Kopuru horri gehitzen zaion ibilgailu bakoitzeko: 8,30 €urteko.

B) Industria eta ibilgailu dendetarako sarrera: 113,10 €urteko.

C) Eraikitzen ari diren eraikinetarako sarrera. Espaloitik igarotzea metro lineal edo zatikiko eta urte edo zatikiko: 52,35 €urteko.

D) Aparkaleku erreserba:

1.- Aparkaleku erreserba iraunkorrak; ml. edo zatikiko: 48,85 €urteko.

2.- Aparkaleku erreserba denda ordutegian edo aldi batez; metro lineal edo zatikiko: 41,70 €urteko.

3.- Taxi aparkalekuetan, ibilgailu bakoitzeko: 97,65 €urteko.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**Tarifak aplikatzako arauak**

- a) Espaloiko pasabidearen zabalera zintarria jaitsirik dagoeneko metro karratuen arabera zehaztuko da zintzarria dagoenean. Espaloiko zintarria jaitsirik ez balego eta espaloia kendu gabe, neurria guztira kasu bakoitzeko lokal edo orubera sartzeko hutsunearen luzera erabilgarria izango da.
- b) Lokal batek bi pasabide edo gehiago baditu, lehenengoak dagokion tarifaren arabera ordainduko du zerga eta gainontzekoak dagokionaren %50.
- c) Pasabideak jarri, mantendu, eraberritu nahiz kentzeko eta aparkalekuen erreserbarako hala nola horien seinalizaziorako gastuak eskatzaileen kontu eta kargurakoak izango dira.
- d) Tarifa hauen arabera eskatzekoak diren kopuruak eskatutako probetxamendu bakoitzeko likidatuko dira eta laburtezinak izango dira hile naturaleko.
- e) Ordaintzeko beharreko hauexetatik sortzen da:
  1. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean baimen bereziak ematen badira, hainbanaketa kalkulatu behar da hurrengoko hilearen lehenengo egunetik hasita. Hainbanaketa hori, hileari dagokionean, baxa kasuetan aplikatuko da.
  2. Baimendutako probetxamenduak edo erabilerak badira, urte naturaleko lehenengo egunetik hasita.

**C) EPIGRAFEA. ERABILERA PUBLIKOKOAK DIREN BERTAKO LURRAK OKUPATZEA MAHAI, AULKI ETA ANTZEKOEKIN, BETI ERE IRABAZTEKO ASMOAREKIN:**

Metro karratuko edo zatikiko eta urteko:

Toki estalietan: 21,40 €

Toki estali gabeetan: 10,75 €

Tarifak aplikatzeko arauak:

- a) Tarifa hauetako dagokien kopuru galdagarria urte osorako eskatutako edo burututako aprobetxamendu bakoitzak likidatuko du.
- b) Ordaintzeko beharra hauexetatik sortzen da:
  1. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezi hasten denean baimen bereziak ematen badira, hainbanaketa kalkulatu behar da hurrengoko hilearen lehenengo egunetik hasita. Hainbanaketa hori, hileari dagokionean, baxa kasuetan aplikatuko da.
  2. Baimendutako probetxamenduak edo erabilerak badira, urte naturaleko lehenengo egunetik hasita.
- c) Orokorrean bost urteko iraupena duen zerga-kuotaren % 50eko hobaria ezarriko zaie 2004ko irailaren 29ko Osoko Bilkurak onetsitako Terrazak jartzea arautzen duen Udal Ordenantzaren arabera lehenengo aldiz terrazak jartzeko lizentzia lortzen duten subjektu pasiboei. Hobaria indarrean dagoen bitartean lokalak lekua aldatzen badu, eskatutako higigarriak barne, jabe berriak hobari hau izango du gainerako denboraldirako aurreko jabeari hobaria eman zitzaionetik bost urteko epea bete arte.

**D) EPIGRAFEA. KIOSKOAK HERRI-BIDEAN**

Metro karratuko edo zatikiko eta hileko edo zatikiko: 11,90 €



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**Tarifak aplikatzeko arauak**

Tarifa hauen arabera eskatzekoak diren kopuruak eskatutako probetxamendu bakoitzeko likidatuko dira eta laburtezinak izango dira hile naturaleko.

b) Litazio publikoko prozedurak erabiltzen direnean, emakida, baimena edo esleipena izango duen proposamenaren balio ekonomikoak ezartzen duenaren arabera izango da tasaren zenbatekoa.

c) Ordaintzeko beharra hauexetatik sortzen da:

- Emakidak edo baimenak badira, erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean.

- Baimendutako emakidak badira, urte bakoitzeko lehenengo egunean.

**E) EPIGRAFEA: POSTUAK, BARRAKAK, SALMENTA POSTUAK, IKUS-KIZUNAK, ATRAKZIO EDO JOLAS-TOKIAK JARTZEA ERABILERA PUBLIKOKO BERTAKO TOKIETAN, BAITA KALEKO INDUSTRIAK ETA IBILTARIAK ERE**

**1) ASTEKO MERKATU TXIKIAK**

Baserriko produktuen salmenta-postua m. lineal eta eguneko: 0,90 €

Beste produktuen salmenta-postuak m. lineal eta eguneko: 3,05 €

**Tarifak aplikatzeko arauak**

a) Txabolak, postuak, jarlekuak eta gainontzeko probetxamenduak Udal Administrazioari eskatu beharko zaizkie eta horien emakida eta gozamina udal merkatu eta merkatu txikiei buruz Udalak onartutako Araudi, Kontratu eta xedapen berezietara lotuko zaizkie. Hala ere, Ordenantza arautzaileak xedatutakoaren kaltetan gabe, epea bukatua duten hileroko ordainketa ez egiteak emandako probetxamenduaren gozamina kentzea ekarriko du.

b) Adierazitako tarifak alde aurretik ordainduko dira hilaren barruan, eta Udalak banku-helbideratzearen bidezko ordainketa sistema ezar dezake, bi hilabete edo hiru hilabeteko aldietan, beti ere alde aurretik. Hala ere, baserriko produktuei dagozkien eguneko tarifak banku-helbideratzearen bidez kobratuko dira hilabeteko epemuga igaro eta gero.

**2) AZOKA DAGOENEAN ETA HERRIKO JAIETAN JARTZEN DIREN SALMENTA POSTUAK, BARRAKAK ETA ERA HORRETAKO INSTALAZIOAK.**

Metro karratuko edo zatikiko eta astero edo zatikiko: 3,10 €

**Tarifak aplikatzeko arauak**

a) Ferialekuen lurak esleitzeko enkante, lehiaketa edo kontratuen sistema erabiltzen bada, Udalak kasuan kasuko erabakitzen dituen oinarri eta baldintzen arabera egingo da esleipena. Kasu horietan, emakida, baimena edo esleipena izango duen proposamenaren balio ekonomikoak ezartzen duenaren arabera izango da tasaren zenbatekoa.

b) Tarifak asteko kopuruko edo zatiko aplikatuko dira eta aurreko koefizienteak aplikazio horretatik sortzen den kopuruaren %75 gutxituko da, baldin eta orokorrak ez diren feria edo jaiak edo ferialekuetan sartzen ez diren instalazioak badira.

**3) BESTE ERABILPENAK**

Lurzorua okupatzeagatik behin-behingo instalazioekin, mahai desmuntagarri edo antzerakoekin, edota edozein artikulu saltzeko ibilgailuekin:

Metro linealeko edo zatiko eta asteko edo zatiko: 2,95 €



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## F) EPIGRAFEA: UDAL TITULARITATEA DUTEN BIDEAK ERABILTZEA

Zergagaiak dira udal titularitatea duten landabideak erabili eta era berezian aprobetxatzen duten ibilgailu astunek, baldin eta tonakopuruak zorua kaltetzeko arriskua badakar, eta bereziki egurra eta peiak garraiotzen dituztenak. Garraiotarako udal lizentziaren emakida behar da aurretik.

Fidantza ordaindu behar dute nahitaez bidearen erabilpenari edo probetxamenduari dagokion lizentzia tramitatu eta lortu duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek, beti ere lizentzian agertzen denaren arabera. Zurgaien enpresetako arduradunak ere erantzuleak izango dira, eta horien orde, zura garraiotuko duena.

Bidearen erabilpena edo probetxamendu berezian narriadura edo hondatzea gertatuz gero, Ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoa jarraituko da.

Fidantzen zenbatekoa	
Bidearen luzera	Fidantza
1 Km. baino gutxiago	1,95 €estereo edo 2,96 €Tm.
1 eta 2 Km. bitartean	2,80 €estereo edo 4,28 €Tm.
2 Km. baino gehiago.	3,33 €estereo edo 4,96 €Tm.
Gutxieneko fidantza, nolana ere, ondoko hau izango da:	2.523,09 €

## G) EPIGRAFEA: BIDE PUBLIKOAREN GAINEAN EDO TOKIKO JABARI PUBLIKOKO LURSAILEN GAINEAN EZARRITAKO EDO HAUEN GAINETIK HEGAN EGITEN DUTEN GAILUEK OKUPATZEA SALMENTA AUTOMATIKORAKO ETA ANTZEKOETARAKO

Metro linealeko edo zatikiko eta urteko: 135,90 €

### Tarifak aplikatzeko arauak:

a) Tarifa hauei dagokien kopuru galdagarria urte osorako eskatutako edo burututako aprobetxamendu bakoitzak likidatuko du.

b) Ordaindu beharraren jatorria hauxe da:

-Erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia hasten den unean baimen edo instalazio berriak egotea, kuotaren hainbanaketa hiruhileko naturaletan kalkulaturaz gero. Hainbanaketa hau bajak daudenean aplikatuko da.

- Lehendik baimendutako edo instalatutako aprobetxamenduak edo erabilerak egotea, urte naturalen lehenengo egunean.

c) Kontzeptu zehatz honen bidez bide publikoaren gainean edo tokiko jabari publikoko lursailen gainean ezarritako edo hauen gainetik hegan egiten duten kutxazain automatikoak, bideo, gozoki saltzaileak, freskagarrien makinak eta antzekoak likidatuko dira.

## II.- KALEEN SAILKAPENA

Kaleak eta orokorrean Udalerriko tokiak, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Eranskinean ezarritako kategorietan banatzen dira. Tarifa hauetan aplikatuko diren gehikuntza indizeak aipatutako Zergan kale kategoria bakoitzari dagozkionak dira.